



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



EIBARKO UDALA
Ayuntamiento de Eibar

HAUTAKETA-PROZESUA

EUSKARAKO 2 IRAKASLE NORMALIZATZAILE

Lehenengo ariketa: proba teorikoa

2025-11-14



1 Zer jasotzen du 1978ko Espainiako Konstituzioaren I. tituluko III. kapituluak?

- 1a) Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriak.
- 1b) Eskubideak eta askatasunak.
- 1c) Oinarrizko eskubideak.
- 1d) Askatasunen eta oinarrizko eskubideen gaineko bermeak.

2 Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunen Egoitza:

- 2a) Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.
- 2b) Batzorde Arbitralaren erabaki baten bidez finkatuko da.
- 2c) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan zehaztuta dago.
- 2d) Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez finkatuko da.

3 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen Arabera, hauetako zein EZ da interesdun Administrazio Prozeduran?

- 3a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- 3b) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- 3c) Prozedura haiek ez hasi arren, hartan emango den aginduak uki ditzakeen eskubideak dituztenak, eta aginte eskudunaren aurrean agertuko direnak, soilik modu pertsonalean.
- 3d) Erantzun guztiak okerrak dira.

4 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, arau orokor gisa, adierazi tokiko erakundeek zein hizkuntzatan izapidetuko dituzten administrazio prozedurak:

- 4a) Euskaraz.
- 4b) Gaztelaniaz.
- 4c) Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.
- 4d) Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.



5 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio guzti-guztien erregistro elektronikoen funtsezko ezaugarri bat bete behar dute:

- 5a) Normalizatuta egon behar dira.
- 5b) Teknikoki elkar trukatzeko modukoak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenak igortzea bermatzeko ere.
- 5c) Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa dena delakoa izan arren.
- 5d) Osotara elkarreragingarriak izan behar dira, beren bateragarritasun informatikoa eta elkarrekiko konexioa bermatzeko, baita erregistro-idazpenen eta edozein erregistrotan aurkeztu diren dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko.

6 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera, pertsona juridikoen ordezkariak, administrazio-prozedura baten edozein izapidetarako, behartuta egongo dira administrazio publikoekin harremana izatera:

- 6a) Bitarteko elektronikoen bidez, lege batek hala eskatzen duenean.
- 6b) Bitarteko elektronikoen erabiliz edo ez.
- 6c) Bitarteko elektronikoen bidez, nahitaez.
- 6d) Bitarteko elektronikoen bidez, arauz garatzen denean.

7 Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 artikulua arabera, enplegu publikoko lanpostuak lortzeko, betetzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuak erregulatzen dituzten administrazio-arauek edo -egintzek, praktikaldiei buruzkoak barne hartuta, honako hauek jaso behar dituzte:

- 7a) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 20 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.



- 7b) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 30 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 7c) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.
- 7d) Klausula bat, zeinaren bidez, gaikuntza-berdintasuna egonez gero, emakumeei lehentasuna emango zaien emakumeak % 50 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak izatea, sexuan oinarritutako diskriminaziorik eragiten ez dutenak, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

8 Erreferentzia maila bateratua: sei mailari erreparatzen die Europako Kontseiluak. Zeintzuk dira?

- 8a) Hasierako maila, Tarteko maila, Atalase maila, Maila aurreratua, Gaitasun operatibo eraginkorra eta Menderatze-maila.
- 8b) Oinarritzko maila, Tarteko azpimaila, Erdiko maila, Azkenengo maila, Menderatze maila eta Master maila.
- 8c) Zero maila, Tarteko maila, Atalase maila, Azpimaila aurreratua, Gaitasun operatibo eraginkorra eta Menderatze-maila.
- 8d) Erabiltzaile independentea, Oinarritzko dependentea, Atalase maila, Menderatze azpimaila eta Menderatze-maila.

9 EEMBa kontuan hartuta, hautatu zuzenena:
Ebaluazio jarraitua irakasleak, eta baita, agian, ikasleak ere, gelako jarduerari, ikastaroko lanei eta proiektuei buruz egiten duen ebaluazioa da. Azken, beraz, ikastaro, ikasturte edo sei hileko osoa hartzen du kontuan.

- 9a) Helburuak
9b) Oharrak
9c) Uneak
9d) Emaizak



10 Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera (EEMB), zeintzuk dira ebaluazioaren analisi guztietan tradizioz funtsezkotzat hartzen diren hiru kontzeptuak?

- 10a) Baliotasuna, elkarreragingarritasuna eta emankortasuna.
- 10b) Baliogabetasuna, konfiantzagarritasuna eta argitasuna.
- 10c) Baliotasuna, fidagarritasuna eta bideragarritasuna.
- 10d) Idatzizko fasea, ahozko fasea eta elkarreragina.

11 EEMBa kontuan hartuta, hautatu erantzun egokiena: Komunikazio-jardueren deskribatzaileak hiru eratara erabil daitezke, lortu behar diren

- 11a) emaitzaren arabera.
- 11b) hainbat moduluren arabera.
- 11c) ebaluazioaren helburuen arabera.
- 11d) helburuen arabera.

12 EEMBa kontuan hartuta, aukeratu erantzun zuzenena: Deskribatzaile argigarrien eskalek gaitasunaren ebaluazioarekin lotura dute, hots, mundu errealean moldatzeko gaitasunarekin?

- 12a) Ez.
- 12b) Gutxitan, ikaslearen arabera.
- 12c) Bai.
- 12d) Batzuetan bakarrik.

13 HEOCaren sei gaitasun-mailak eskuratzeko ibilbide didaktikoan, zeren arabera bereiziko dira azpimailak?

- 13a) Ikasleen adinaren eta ikaskuntza-estiloaren arabera.
- 13b) Gaitasun-maila handiena duten ikasle kopuruaren arabera.
- 13c) Hizkuntza-trebetasun hartzaile eta ekoizleetan ikasleek dituzten gaitasunetan oinarrituta.
- 13d) HABEren zuzendari nagusiaren ebazpenez soilik

14 Aukeratu egokiena: Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) hau lerrun nagusitan dago banatuta:

- 14a) Lau
- 14b) Hiru



- 14c) Sei
- 14d) Bi

15 Aukeratu egokiena: Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) honen lerrunok banatuta daude.

- 15a) hiruna mailatan
- 15b) bina mailatan
- 15c) lau mailatan
- 15d) bost mailatan

16 Aukeratu zuzenena: HEOCen arabera, A2 mailan gai da

- 16a) egoera ezagunetan kideekin (lagun, senide, lankide, etab.) aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak eta azalpen errazak egiteko eta ulertzeko, baldin eta bere esperientzia-esparruarekin loturiko gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena eskatzen badute: bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, eta erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzkoa.
- 16b) eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila altuko solaskideekin elkarrizketak izateko, gai orokorra eta ohikoa izan eta xedea informazioa trukatzeko denean. Era berean, gai da lagunei, senideei eta ikaskideei edo lankideei instrukzioak emateko, pertsonak eta objektuak labur deskribatzeko eta gertaeren kontaketa luzeak egiteko. Gai da, era berean, bere iritziak labur-labur emateko eta bere asmoak azaltzeko.
- 16c) eremu profesionalean hizkuntza-adierazleak estrategikoki erabiltzeko eta elkarri trukatzeko.
- 16d) eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan beharrezkoak diren hitzak eta esapide sinpleak ulertzeko eta iritziak jartasunez adierazteko.

17 HEOCen arabera, nolakoa da B1 mailako erabiltzailea ?

- 17a) erabiltzaile aurreratua.
- 17b) erabiltzaile aditua.
- 17c) erabiltzaile independentea.
- 17d) hasierako erabiltzailea.

18 Aukeratu egokiena eta zuzenena: HEOCen arabera, C2n matrikulatu ahal izateko ikaslegaiak beharko du.....

- 18a) C1 mailan matrikulatuta egon izana.

- 18b) EGA agiria edo baliokidea.
- 18c) B eta 4. HE tituluak.
- 18d) gaitasuna testuak irakurtzeko.

19 HEOCa kontuan hartuta aukeratu zuzena: Gaitasun testualaren garapenean azpimarratzen da...

- 19a) testu-generoa, berriz, testu estereotipatua da; hau da, hizkuntza zahararen zaharrez finkatua eta komunikazio-egoera beretan maiztasun jakin batez errepikatzen dena.
- 19b) testu-generoa testu estereotipatua da; hau da, erabiliaren erabiliaz finkatua eta komunikazio-egoera beretan maiztasun jakin batez errepikatzen dena.
- 19c) testu-generoak hiztunek partekatzen ez dituzten molde ezezagunak dira, eta, betiere, duten kanpo-formatuagatik eta testuinguruagatik atzemateko modukoak.
- 19d) testu gutxi du egitekoa testuinguruan.

20 HEOCaren arabera, zein da ebaluazio sumatiboaren funtzio nagusia?

- 20a) Ikaslearen ikasprozesua auto-erregulatzen gaitzea.
- 20b) Ikaste- eta irakaste-prozesua orientatzea.
- 20c) Emaizak ezagutzea eta ezagutaraztea, eta programen eraginkortasun-maila egiaztatzea.
- 20d) Ikaslearen aurretiko ezagutzak eta eskarmentua azaleratzea.

21 HEOCaren helburu nagusienetako bat hau da:

- 21a) Ikasleak euskara ahoz zein idatziz trebetasunez erabiltzeko gai izatea, komunikagaitasuna oinarri hartuta.
- 21b) Euskaltegietako irakasleen kudeaketa didaktikorako jarraibide zehatzak finkatzea.
- 21c) Euskaltegien testuinguru soziolinguistikoa aztertu eta sailkatzea.
- 21d) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arau organikoak eguneratzea.

22 HEOCaren arabera, zein da A1 maila burutzean lortzen den komunikagaitasunaren helburua?

- 22a) Gai izango da eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan beharrezkoak diren hitzak eta esapide sinpleak ulertzeko eta erabiltzeko.

- 22b) Gai izango da egoera ezagunetan kideekin aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak egiteko.
- 22c) Gai izango da ohiko gai eta egoera ezagunetan adierazpen argiak egiteko.
- 22d) Gai izango da eremu profesional, publiko zein pertsonalean informazioa era landu eta jantzian trukatzeko.

23 HEOCaren arabera, zein da Lerrun aurreratuaren (B1+B2) xedea?

- 23a) Ikasleak era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzian, ahoz zein idatziz.
- 23b) Ikasleak eguneroko gaiei buruzko euskarazko testu laburrak ulertzea.
- 23c) Ikasleak ohiko testuinguru, gai eta egoera ezagunetan instrukzioak, kontaketa laburrak eta azalpen-testuak ulertzea, eta, ahoz zein idatziz, euskara zehaztasunez eta eraginkortasunez erabiltzea.
- 23d) Ikasleak konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko gai izatea.

24 HEOCaren arabera, C1 mailan, zer lortu behar du ikasleak Mintzamenaren trebetasunean, elkarreraginean?

- 24a) Jariotasun handiz eta zehaztasunez, gauzak adierazteko gai izango da, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.
- 24b) Lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jariotasunez eta eraginkortasunez adierazteko gai izango da.
- 24c) Ohiko elkarreraginean jariotasunez aritzeko gai izango da, besteak jakinaren gainean jarritz, iritzia eskatuz, bere ikuspegia defendatuz, etab.
- 24d) Oinarrizko behar komunikatiboei erantzuteko parte-hartze laburrak, baina egokiak eta ulergarriak egiteko gai izango da.

25 HEOCaren arabera, B1 mailan, zein da entzumeneko testuinguru arrunta?

- 25a) Eguneroko harremanetan eta aurrez aurreko testuinguru ezagunetan.
- 25b) Egoera ezagunetan.
- 25c) Testuinguru ezagunetan (eskola, aisia, lana...) eta erregistro estandarrean egindako gertaeren kontaketak, azalpenak, deskribapenak, etab.
- 25d) Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak.

ERRESERBAKO GALDERAK

- 26 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, zein prozeduratan dute administrazio publikoek ebazteko betebeharra?**



- 26a) Salaketagatik ofizioz hasten diren prozedura guztietan bereziki.
- 26b) Oro har, ofizioz hasten diren prozedura guztietan.
- 26c) Prozedura guztietan, horien hasteko modua edozein dela ere.
- 26d) Prozedura guztietan, horien amaitzeko modua edozein dela ere.

27 Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, kale-bideetan jarritako bide-seinale eta mezuak honela egongo dira idatzita:

- 27a) Gaztelaniaz eta euskaraz, trafiko eta bide-segurtasun arloko nazioarteko arauak errespetatu ez arren.
- 27b) Soilik gaztelaniaz, betiere nazioarteko arauak errespetatuz trafiko eta bide-segurtasun arloan.
- 27c) Bi hizkuntzetan, betiere nazioarteko arauak errespetatuz eta erabiltzaileentzako ulergarritasun- eta segurtasun-eskakizunak betez.
- 27d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

28 HEOCaren arabera, C2 mailaren helburua zein da?

- 28a) Lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu ulertzea.
- 28b) Eguneroko testuinguru ezagunetan eta maila bereko solaskideekin elkarriketak izatea.
- 28c) Gai da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokituz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoiztea.
- 28d) Egoera ezagunetan kideekin aurrez aurreko elkarreraginean gauzen eta pertsonen deskribapenak egitea

29 HEOCaren arabera, zein da ebaluazio formatiboaren egiteko nagusia?

- 29a) Emaitzak ezagutzea eta programen eraginkortasun-maila egiaztatzea.
- 29b) Ikaste- eta irakaste-prozesua erregulatzea, moldatzea, egokitzea eta doitzea.
- 29c) Ziurtagiri ofizialak lortzeko prozedurak arautzea.
- 29d) Azterketari baten mintzamen-maila zehaztea.

30 HEOCean ezarritakoari jarraikiz, zein da ebaluazio-irizpide nagusia?

- 30a) Zuzentasun gramatikala.
- 30b) Komunikazio-eraginkortasuna.
- 30c) Aberastasun lexikala.
- 30d) Jariotasuna.